

Gogortu egin dute surf irakasle bati sexu abusuengatik jarritako kartzela zigorra

- EAEko Auzitegi Nagusiak ebatzi du sexu erasoak egin zituela, ez sexu abusuak.
- Auzitegiak ondorioztatu du zigortuak «bortizkeria emozionala» baliatu zuela.

Jakes Goikoetxea

DONOSTIA— Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak 71 urte, bost hilabete eta bederatzia eguneko kartzela zigorra ezarri zion gizon bati, 11 mutil adingaberi sexu abusuak egiteagatik eta haurren sexu esplotaziorako materiala edukitzeagatik. EAEko Auzitegi Nagusiak, ordea, aintzat hartu ditu fiskaltzak eta akusazio partikularrek aurkeztutako zenbait helegite, eta gogortu egin dio zigoria: 88 urte eta bost hilabetera luzatu du. Auzitegiarentzat 11 kasuetatik hamarretan sexu erasoak egin zituen, ez sexu abusuak.

Zigortua surf irakaslea zen Hondarribian (Gipuzkoa). 2011tik 2021era egin zituen erasoak, eta 2021eko abuztuan atxilotu zuten. 37 urte zituen orduan. Aurtengo martxoan epaitu zuten. Sexu eraso biktima horietako batzuek 9 urte inguru zituzten surf eskolak hartzen hasi ziren garaian.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak gizona zigortu zuenean, mutilen familiek esan zuten «harrituta» zeudela, epaileak ez zuelako onartu surf irakaslearen «intimidazioa» egon zenik. Auzitegi horrentzat, surf irakasleak bere «nagusitasuna» baliatu zuen

mutilekin, haien surf irakaslea baitzen, eta haiek baino helduagoa; baina, auzitegiaren ustez, mutilek ez zuten beldurrik izan. Beraz, sexu abusuak egiteagatik zigortu zuten, ez sexu erasoengatik. Orain, baina, EAEko Auzitegi Nagusiak arrazoia eman die fiskaltzari eta gurasoei.

Zenbait mutilen abokatuak helegitean argudiatu duenez, «testuingurua saihestea» da pentsatzea ez zela intimidaziorik egon surf irakasleak indarkeria fisikorik erabili ez zuelako eta mehatxurik egin ez zuelako: «Eremu seguru bat izango zuela bermatu zuten bere ekintzak egiteko, intimidazio psikologikoa baliatuz».

EAEko Auzitegi Nagusiak aintzat hartu du. Uste du adingabeak «akusatuaren bortizkeria emozionalaren subjektu pasiboak» izan zirela. Ohartarazi du adingabeen kontrako bortizkeria ez dela bortizkeria fisikoa soilik, mota askotakoa izan daitekeela, «emozionala barne».

Bost eta hamahiru urte eta erdi arteko kartzela zigorra ezarri die sexu eraso delitu bakoitzagatik —horietako sei jarraituak izan ziren—, eta %30 handitu ditu zigortuak biktimei ordaindu beharreko kalte ordainak. ●

Santurtziko irakasle batek eraso bat salatu du

SANTURTZI— Adingabeen fiskaltza Santurtziko Kantauri institutuko ikasleek irakasle bati egindako jazarpena ikertzen ari da. Irakasleak salatu du ikasleek eskuko telefonoarekin argazkiak egin dizkiotela ikasgelan, eta ondoren «manipulatuta» zabaldu dituztela. Esan dutenez, ikasleak identifikatuta daude.

DATUA

553

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak jakinarazi duenez, aurtun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 553 lagun ospitaleratu behar izan dituzte gripeagatik, iazko garai berean erietxera eraman behar izandakoen halako bost, 2024an 108 izan baitziren.

Hildako bat Beran izandako auto istripu batean

TRAFIKO ISTRIPUA— Atzo 75 urteko emakume bat hil eta beste bi pertsona zauritu ziren N-121-A errepideko 68.3 kilometroan, Beran (Nafarroa), lau ibilgailuk elkar jo ondoren. Larrialdi zerbitzuek 16:14an izan zuten istripuaren berri. Hala ere, ezin izan zuten ezer egin 75 urteko emakumea suspertzeko.

HITZ GUTXITAN

Guardia zibil bat atxilotuta, 120 kilo kokaina eramateagatik

SANTURTZI— Ikerketa zabalago baten barruan, Polizia Judizialak guardia zibil bat atxilotu zuen igandean Bilboko portuan. Lanean ari zen, eta auto ofizialean 120 kilo kokaina zeuzkan gordeta. EFE albiste agentziaren informazioaren arabera, guardia zibilak hogeitau urte zeramatzen portuko aduanan lanean, zerga eta mugazaintza arloan, merkantzien garraioa zaintzen. Epaileak espetxeratu egin du, behin-behinean. Informazio hori bera berretsi zuen atzo Marisol Garmendia Espainiako gobernua EAEn duen

ordezkariak. Bilboko ekitaldi ofizial batean zela, jakinarazi zuen Guardia Zibilaren barne arazoaren departamentuak denbora zeramala atxilotutako agentea ikertzen. Esan zuenez, guardia zibila aspalditik ari zen Bilboko portuan lanean, eta aitortu du polizien erakundearentzat «ezustea eta kolpe handia» izan dela.

Asteak ziren guardia zibilarik telefonoa kontrolatua ziote-la, eta jarraitu ere egin zitoten. Guardia zibila atxilotu zuen egun berean, Polizia Judizialak haren etxea miatu zuen, Castron (Kantabria).



Makinak beharrean Oionen. EUSKO JAURLARITZA

Hondeamakinak lanean hasi dira Labrazan, parke eolikoa eraikitzeko

Oionen (Araba) Labrazako parke eolikoa eraikitzeko lanak hasi dituzte. Egitasmoa Aixendar sozietateak bultzatzen du, eta bertan partaide dira Iberdrola eta Eusko Jaurlaritza, Energiaren Euskal Erakundearen bidez. Hogeiturtan ez da parke eolikorik

eraiki Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. 59 milioi euro inbertituko dituzte.

Jaurlaritzaren arabera, trantsizio energetikoranzko «urrats erabakigarria» izango da, eta uneotan krisian den sektore eolikoaren hornidura kateari bultzada emango dio.

Eskelak

(0034) 943-30 40 30 • eskelak@bidera.eus

Berria.eus/eskelak

BERRIAlaguna edo BERRIAlagun harpideduna bazara, kontsultatu tarifa bereziak